



Ajangizko Udala



AJANGIZKO UDALAK 2014KO APIRILAREN 9AN OSPATUTAKO OHIKO BILKURAREN AKTA.-

Batzarreratuak:

Alkatea:

Mikel Ander Zubizarreta Gonzalez-Rua jauna

Zinegotziak:

*Beñat Onaindia Goñi jauna
Beñat Madariaga Aurrekoetxea jauna
Leire Garatxena Larrabe andrea
Ismael Oar-Arteta Undabeitia jauna
Jesus M^a Ajuria Odriozola jauna*

Bitarteko Idazkaria:

Saioa Pineda Aranburu andrea

Ajangizko Udaletxean, 2014ko apirilaren 9an arratsaldeko 18:30etan eta horretarako deialdia egin ondoren, Udal Osoa biltzen da ohiko bilera ospatzeko, goian aipatutako zinegotziekin.

1.- AZKEN BILERETAKO AKTAK IRAKURRI ETA ONESTEA, BEHAR BADA.-

2014ko otsailaren 14an ospatutako ohiko bileraren akta hautespenerako jarrita, bertaratutako zinegotzi guztiek onartu dute.

2.- ALKATETZAK EMANDAKO DEKRETUEN BERRI EMATE ETA ONESPENA, BEHAR BADA.-

- **Otsailaren 7ko 2014/010 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Kiroldegirako diru laguntza.
- **Otsailaren 7ko 2014/011 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Kiroldegirako diru laguntza eskaerari ezetza.
- **Otsailaren 7ko 2014/012 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** 2014ko Gernika Lumoko kiroldegiko kuotaren familia ugarietzako laguntza
- **Otsailaren 7ko 2014/013 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Ibilgailuen baja dela kausa, 2014ko ibilgailuaren gaineko zergaren itzulketa.
- **Otsailaren 7ko 2014/014 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Minusbaliotasuna dela kausa, motordun ibilgailuen gaineko zerga arautzen duen ordenantzak 4. artikuluan, jasotzen duen salbuespena kontutan hartuta, salbuespena onartzea.
- **Otsailaren 7ko 2014/015 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Landalur katastroko 2. Poligonoko 218 lursailan egindako itxitura lanak legez kanpoko aitortzea.



Ajangizko Udala



- **Otsailaren 7ko 2014/016 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Egurra ateratzeko herri bideak erabiltzeagatik Maderas Elorriaga S.L.k aurkeztutako 1.082,00 euroko bermea itzultzea.
- **Otsailaren 7ko 2014/017 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Maderas Elorriaga S.L.enpresari, T.A.M.ren basotik egurra atera behar duela eta, Ajangizko herri bideak erabiltzeko udal baimen ematea.
- **Otsailaren 10eko 2014/018 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Kiroldegirako diru laguntza eskaerari ezetza.
- **Otsailaren 18ko 2014/019 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Central Forestal S.A. enpresari, Gorroño Azueta neba-arreben basotik egurra atera behar duela eta, Ajangizko herri bideak erabiltzeko udal baimen ematea.
- **Otsailaren 18ko 2014/020 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Maier S.Coop.eri, larrialdietarako fatxadako eskaileran egindako zaharberitze lanak legezztatzea, aurkeztutako proiektuan azaldutakoaren arabera.
- **Otsailaren 24ko 2014/021 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Martxoaren 8an Emakumeon Eguna ospatzen dela kontutan hartuta, alkatetza honek Euskal Herria Bilduren martxoaren 8ko adierazpena berea egiten du, Euskal Herri Feminista Eraikitzeko Konpromisoa aldarrikatuz.
- **Otsailaren 26ko 2014/022 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Kiroldegirako diru laguntzak.
- **Otsailaren 26ko 2014/023 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Gernika Lumoko kiroldegiko kuotaren familia ugariantzako laguntza.
- **Otsailaren 26ko 2014/024 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Ajangizko landalurreko 2. Poligonoko 218 partzelan zaldientzat itxitura egiteko baimena.
- **Otsailaren 28ko 2014/25 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Ajangizko udaletxeko idazkaritza-artekaritza lanpostua betetzeko ohiko lehiaketaren oinarri espezifikoen onarpena.
- **Otsailaren 28ko 2014/26 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.- Udaletxeko defentsa juridikoa** Iraultza BILBAO URIARTE eta Alvaro CUETO AGUINAGA abokatuei agintzea eta ordezkaritza Bilboko Begoña CARCEDO MENDIVIL, Isabel MARDONES CUBILLO eta Idoia MALPARTIDA LARRINAGA eta Gernikako Itxaso ESESUMAGA ARROLA, Marta LEZAOLA RUIZ eta Iruñe GORROÑO MENCHACA prokuradoreei.
- **Martxoaren 6ko 2014/027 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Erleaga Anaiak enpresari, Ajangizko 1. Poligonoko 157 partzelatik egurra atera behar duela eta, Ajangizko herri bideak erabiltzeko udal baimen ematea.
- **Martxoaren 7ko 2014/028 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Kiroldegirako diru laguntza.
- **Martxoaren 7ko 2014/29 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Minusbaliotasuna dela kausa, motordun ibilgailuen gaineko zerga arautzen duen ordenantzak 4. artikuluan, jasotzen duen salbuespena kontutan hartuta, salbuespena onartzea.
- **Martxoaren 14ko 2014/030 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Central Forestal S.A. enpresari, Mendatako 1. Poligonoko 223 eta 261 lur zatietatik, Berrekondo basotik egurra atera behar duela eta, Ajangizko herri bideak erabiltzeko udal baimen ematea.
- **Martxoaren 18ko 2014/031 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Ajangizko landalur katastroko 1. Poligonoko 34 eta 35 lurzailtako itxitura berritzeko baimena.
- **Martxoaren 24ko 2014/032 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** 2015,2016 eta 2017 urtetara Ajangizko Udaleko aurrekontu markoaren onarpena.
- **Martxoaren 26ko 2014/33 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** 2013 urteko aurrekontuaren likidazioa.



Ajangizko Udala



3.- BASO APROBETXAMENDUAK ATERATZEKO ETA UDAL TITULARTASUNEN BASO BIDEEN ERABILERA ARAUTZEN DUEN UDAL ORDENANTZA FISKALAREN ZUZENKETA, BEHAR BADA.-

Alkate udalburuak azaltzen duenez, aipatutako ordenantzaren publikazioan, fidantzak zehazterakoan, estereo eta m³tan azaltzen diren kopuruak ez daude parekatuta. M³ eta estereoen arteko parekotasuna zuzentzea proposatzen du, guztia m³tan jarriz eta parekotasuna publikatuz. Horretarako 8. artikulua osoa berriro ere publikatzea proposatzen du.

8. artikulua.- Kuota

Tasa onforen aipatzen den tarifa aplikatzearen ondorio izango da:

0,40 euro/m³

Garraiatu beharreko materialen bolumena ez bada agertzen metro kubikoetan (adibidez estereotan edo tonetan) materiala neurtzeko unitateekin ondorengo koefizienteak erabiliko dira:

Egurraren kasuan: metro kubiko bat = 1,54 estereo erreala

Lurra edo antzerakoaren kasuan: metro kubiko bat = 0,82 tona

ERANSKINA

M ³	Euro
15 m ³ raino	libre
16 - 44 m ³	150,25 €
45 - 89 m ³	300,50 €
90 - 134 m ³	450,75 €
135 - 199 m ³	692,00 €
200 - 299 m ³	1.052,00 €
300 - 399 m ³	1.352,00 €
400 - 499 m ³	1.653,00 €
500 - 599 m ³	2.104,00 €
600 - 699 m ³	2.404,00 €
700 - 799 m ³	3.005,00 €
800 - 899 m ³	3.456,00 €
900 - 999 m ³	3.907,00 €
1000 - 1199 m ³	4.508,00 €
1200 - 1399 m ³	5.108,00 €
1400 - 1599 m ³	5.710,00 €
1600 - 1799 m ³	6.311,00 €
1800 - 1999 m ³	7.212,00 €
2000 m ³ <	8.414,00 €



Ajangizko Udala



Alkateak aurkeztutako proposamena kontutan hartuta, bertaratutako zinegotziek aho batez onartu dute.

4.-AJANGIZKO 2013KO UDAL AURREKONTUKO LIKIDAZIOAREN BERRI EMATEA.-

Alkateak likidazioa onartzen duen martxoaren 26ko 2014/31 alkate dekretuaren berri ematen du, udal aurrekontuaren likidazioaren azalpena emanez. Udal aurrekontuaren emaitza 177.225,35 eurokoa izan da eta 1.053.633,55 eurokoa da gastu orokorretarako diruzaintzarako emakida. Kopuru horretan hala ere kontutan hartu behar da luraren patrimoniora lotutako kopurua. Bestalde aurrekontuaren likidazioak estabilitate printzipioa, gastuarena eta zorrarena bete direla aipatzen du alkateak, apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoak araututakoa betez.

Emakida honek 2014 urtean Urretxako bidea egiteko aukera ematen duela aipatzen du alkateak.

Aurkeztutako dokumentazioa kontutan hartuta, bertaratutako zinegotziak jakintzat jotzen dute beraien burua.

5.- MOTORDUN IBILGAILUEN GAINEKO ZERGAREN 2014KO PADROIAREN ONARPENA, BEHAR BADA.-

2014 urteari dagokion trakzio mekanikozko ibilgailuen errolda aurkeztuta, Udalbatza osoak aho batez ondorengo

EBAZTEN DU:

Lehenengo.- 2014 urteko Trakzio menakizko ibilgailuei dagokion Zerga Errolda onartzea.

Bigarren.- Tributuei buruko Abenduaren 28ko 230/63 Lege Orokorreko 124. atalak eta martxoaren 26ko 3/86 Tributuen Foru Arau Orokorreko 125.2 artikuluan araututakoarekin bat, irgarki honek Trakzio Mekanizko Ibilgailuen gaineko zergari dagokionez zergapekoei zuzendutako jakinerazpen kolektiboaren ondorioak izango ditu.

Hirugarrena.- Iragarkia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunaren hurrengotik aurrera hamabost (15) eguneko epean, errolda jendaurrean arkezten da, interesdunek errolda aztertu eta bidezko deritzaten alegazio edo erreklamazioak aurkezterik izan dezaten.

Laugarrena.- Epe hori igarota erreklamaziorik aurkeztu ezean, errolda behin betiko onartutzat joko da.

Non. Noiz eta nola ordaindu

.- Borondatezko ordainketa, gaionardainik gabekoa.

a) Epea: 2014ko maiatzaren 1etik 2014ko ekainaren 30era (bi egun horiek barne).

b) Non eta nola ordaindu: Domiziliatu gabe dituzten zordunek, Banketxean edo Udaletxean jendaurreko ordutegian ordaindu dezakete, dagozkien inprimakia aurkeztuz. Zergadunek ordainagiriak banketxean helbideratu dezakete.



Ajangizko Udala



Inprimakiak jaso ez izana edota ordainagiritan akatsen bat egoteak ez du ordaindu beharra salbuesten

Borondatezko epea igarota ordainketa burutuko ez balitz, premiabidez kobratzeari ekingo zaio, Bilketarako Erreglemendu orokorreko 95 eta 96 artikulua aplikatuz, %20ko gainordainaz, berandutze interesak, gastuak eta kostua gehituz.

Indarreango xedapenen arabera, zerga honen ordainketa gauzatu ezean, ezin izango da ibilgailuaren alta, baja zein eskualdaketarik egin.

6.- EUSKAL SELEKZIOAK OFIZIALKI NAZIOARTEKO TXAPELKETETAN GAINERAKO SELEKZIOEN BALDINTZA BERETAN LEHIATU DEZAN, BILDU TALDEAK AURKEZTUTAKO ESAITEN MOZIOAREN ONARPENA, BEHAR BADA.-

Alkate Udalburuak, Euskal selekzioak ofizialki nazioarteko txapelketetan gainerako selekzioen baldintza beretan lehiatu dezan Esaiten mozioa irakurri eta aurkezten du, Ajangizko udalak adierazpen horrekin bate gin dezala proposatuz.

Proposamena botaziora eramanda, bertaratutako zinegotziek aho batez onartu dute.

Zioen adierazpena

EUROPAR BATASUNAREN OINARRIZKO ESKUBIDEEN GUTUNA (2007/C 303/01) (2007/C 303/01 21. artikuluan, 1 eta 2. puntuan dioena kontuan hartuta:

1. Bereizkeria oro debekatzen da, eta, bereziki, sexua, arraza, larru-kolorea, etnia- edo gizarte-jatorria, ezaugarri genetikoak, hizkuntza, erlijioa edo pentsaerak, iritzi politiko edo beste edozein motatakoak, gutxiengo nazional baten kide izatea, ondarea, jaiotza, ezgaitasuna, adina edo sexu joera direla bide gauzatutakoa.

2. Naziotasunaren ondoriozko bereizkeria oro debekatzen da, Europako Erkidegoa eratzeko Tratatuen eta Europar Batasunaren Tratatuen aplikazio-esparruan, tratatu horietako xedapen bereziak gorabehera.

Gurean aldiz, nahiz eta gizartearen gehiengoak bat egin, euskal selekzioa baztertua da nazioarteko txapelketetatik. Botere publikoek, naziotasun eskubidea bermatzeaz gain, gizartearen nahiari modu positiboan erantzun beharko liokete, eskura diren bitartekoak erabiliz.

Zentzu honetan, erakunde honen konpetentzia euskal selekzioa baztertzea ekiditea ez bada ere, ekarpen xume bat egin lezake, dagozkien instituzioei, udaletxe eta herri/hiri honen aldarria helarazi eta egungo bazterketa ezar ez dezaten. Hau dela eta, honako mozioa aurkezten da.

Mozioaren testua

Ajangizko Udalak ,Ajangizko herritarren borondatearen ordezkari gisa, honako eskaria luzatzen du:



Ajangizko Udala



1.- Euskal selekzioak ofizialki nazioarteko txapelketetan gainerako selekzioen baldintza beretan lehiatu dezan aldarrikatzen du.

2.- Eta hori ahalbideratu ahal izateko, UDALAK, Espainiako Futbol Federazioari, Euskal Selektioari ezarritako betoa kendu eta nazioarteko txapelketetan parte hartzea ahalbidera diezaiola eskatzen dio.

2014ko martxoa.

7.- 2014KO UDAL AURREKONTUEN ONARPENA, BEHAR BADA.-

Alkate udalburuak 2014ko udal aurrekontuaren aurkezpena egiterakoan, 2014ko aurrekontua “regla de gasto” delakora egokitu direla aipatzen du, eta horren kausaz superabitarekin aurkeztu direla.

Udalak estabilitate printzipioa betetzen duela kontutan hartuta eta zorrik ez duela jakinda, diruzaintzako geraketik hartzeko aukera duela azaltzen du, eta asmoa 2014 urte honetan gerakin horrekin Urretxako bidea konpontzea dela.

Ismael Oar Arteta zinegotzi jaunak, Kanpantxuko eskola ere kontuko beharko dela aipatzen du.

Alkateak Kanpantxuko eskolan lanak gauzatu aurretik eskola bera eskuratu behar dela azaltzen du, udalak ezin bait du berea ez den ondasun batean inbertsiorik egin. Beraz Kanpantxuko eskolarekin pausuz-pausu joan beharko dela aipatzen du.

Alkatetzak 2014 urteko Udala aurrekontuen behin behineko onarpenerako aurkeztu duen zehaztapidetza osoa kontutan hartuta.

Zehaztapidetza hori osatzen duten honako dokumentu hauek aztertuta:

- Ekitaldian kitatzeko sarrera eta gastuen ustezko egoera
- Aurrekontuaren edukinari eta aldaketa nagusienei buruzko memoria
- Konpromiso kredituei buruzko ziurtagiria
- Transferentzia arrunt eta kapital transferentziei buruzko eranskina
- Pertsonalari buruzko eranskina
- Udala Aurrekontuen exekuzio araua.

Aurrekontu orokorra honako sarrera eta gastuen kapitulutan banatuta aurkezten da:

GASTUAK		SARRERAK	
I. KAPITULUA	195.145,30	I. KAPITULUA	90.000,00
II. KAPITULUA	247.563,79	II. KAPITULUA	15.000,00
III. KAPITULUA	-----	III. KAPITULUA	75.070,00
IV. KAPITULUA	26.893,51	IV. KAPITULUA	410.713,00
V. KAPITULUA	-----	V. KAPITULUA	5.600,00
VI. KAPITULUA	3.100,00	VI. KAPITULUA	
VII. KAPITULUA	-----	VII. KAPITULUA	
IX. KAPITULUA	-----	IX. KAPITULUA	
GUZTIRA	472.702,60	GUZTIRA	596.383,00



Ajangizko Udala



Idazkari kontuhartzailearen eta Ogasun Batzordearen aldeko txostenetan oinarrituta, 2014 urterako udal aurrekontua, pertsonalaren eranskina eta udal aurrekontuen exekuzio araua botaziora aurkeztuta, bertaratutako zinegotziek aho batez onartzen dituzte.

Bizkaiko Lurralde Historikoko Toki Erakundearen aurrekontuei buruzko abenduaren 2 ko 10/2003 Foru Arauak, 15 artikuluan xedatzen duenaren arabera, jendaurrean azaltzen da, Udal honetako Idazkaritzan aztertzeko eta erreklamazioak aurkezteko.

Delako 10/2003 Foru Arauaren 17. artikulua arabera horretarako eskubidea izan dezaketenez interesatuek, beraien erreklamazioak 15 laneguneko epean aurkeztu ahal izango dituzte, iragarki hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Erreklamazioak Udalbatzaren aurrean aurkeztu beharko dira.

Adierazitako informazio epea igaro ondoren erreklamazio edo oharrik aurkeztuko ez balitz, aipaturiko Aurrekontu Orokorra behin betiko onarturik dagoela ulertuko da, akordio berririk zertan hartu gabe.

8.- ERREGU ETA GALDERAK.-

- Ismael Oar Arteta jaunak, udalak Kanpantxuko eskolan zer egiteko asmoa duen galdetzen du.

Alkateak, lehen esan bezala, lehenengo pausua eskolako eraikina bera eskuratzea dela aipatzen du. Behin udalak bere esku izanez gero, ideia lehiaketa, herritarren partaidetza... eskatuko dela adierazten du, herritarrek dituzten proposamen eta asmoak ezagutu eta aztertu ahal izateko. Horren arabera bertan zer jarri erabaki beharko litzateke.

Konponketei dagokienez, alkateak eraikina eskuratuz gero oinarritzko lan batzuk egin beharra aipatzen du, zorua, leihoak... gero bertan gauza bat edo beste jarri arren berdin balio izango luketena.

Hala ere bertan jarriko denari buruz ideia desberdinak bildu, aztertu, baliabideak ikusi... oraindik ez dago ezer zehaztuta.

Beñat Onaindia zinegotzi jaunak egin beharrak dituela eta batzarra utzi beharra aipatzen du, bere partaidetzari bukaera emanez.

- Alkate udalburuak, Bilboko administrazioarekiko auzien 4. Epaitegiak emandako 7/2014 epaiaren berri ematen du. Epai horretan estatuko abokatuak, udaletxeko fatxadari jarrita dagoen Euskal Presoak Euskal Herrira kartelaren kontrako zalaketa onartzen da, eta udalari kartela kentzeko agindua giten zaio.

Udalak epaia errekurritu ez duela kontutan hartuta, kartela datorren apirilaren 14n kenduko dela jakinerazten du.

- Alkateak Bilboko administrazioarekiko auzien 4. Epaitegiaren 57/2014 epaiaren berri ematen du. Epai horrek udalari bandera espainola jarri beharra jakinerazten dio, eta horren bestez bandera legeak dioena ez duela betetzen.

Alkateak epai hori bihar irmo bilakatuko dela aipatzen du, udalak azkenean ez bait du errekurrituko, eta ondorioz epaia betearazteko epea laster iritziko dela.



Ajangizko Udala



- Alkateak Estatuko abokatuak zalaketa berri bat jarri duela aipatzen du. Zalaketa honetan, udalak bere paper ofizialetan jartzen duen anagramaren kontra egiten du, zera argudiatuz: *“Al Juzgado suplica que, habiendo por presentado este escrito y los documentos que lo acompañan, y copias de todos ellos, se sirva admitirlo, tener interpuesto recurso contencioso-administrativo contra la actividad del Ayuntamiento de Ajangiz (bizkaia) sobre colocación en los impresos oficiales del Consistorio de un anagrama o símbolo que, aunque carece del texto habitualmente empleado para reclamar el regreso de los presos de ETA al País Vasco (Euskal Presoak-Euskal Herrira), adopta, como subterfugio, la imagen similar que se ha venido empleando a dichos efectos reivindicativos (...)”*.

Udalak paper ofizialetan jartzen duen anagrama Euskal Herrian euskaraz-ekoa dela azaltzen du alkateak, eta horren arabera erantzungo zaiola epaitegiari.

- Azkenik alkateak, Euskal Autonomia Erkidegoan Gobernuaren Ordezkariek egindako eskaeraren barri ematen du. Idatzi baten bidez, kontratu administratiboetan udalak eskatzen dituen hizkuntza baldintzei buruzko informazio eskaera egiten du.

Udalak erantzun modura, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak aldeko txostena eman ondoren, “Euskararen erabilera normalizatzeko plana 2013-2017” 2013ko abenduaren 16an onartu zuela udalbatzak erantzun dio. Plan horretan zerbitzuak kontratatzeke irizpideak jasotzen direla azaltzen dio, eta Ajangizko udalak gaur gaurkoz ez duela planean jasotzen den horrez gain kontratazio administratiboetan hizkuntza irizpideak jartzearen inguruko bestelako erabakirik hartu.

- Besterik ezean eta batzarra bukatu baino lehen alkateak ondoren ospatuko den ez ohiko bileraren zergatia azaldu nahi du. Udalbiltzatik ez ohiko batzarra apirilaren 11 edo 12an egiteko proposatu zen, baina idazkariak bi egun horietan ezinezko duela kontutan hartuta, gaur ospatzea erabaki nuen. Hori horrela eta bi bilkurak bata bestearen segidan ospatuko direla kontutan hartuta, alkatetzatik bigarrena ez kobratzea proposatzen da. Bertaratutako zinegotzi guztiek onesten dute proposamena.

Eta beste aztergairik ez dagoenez, batzarra bukatutzat ematen da arratsaldeko zazpitan, eta horren sendespena egiten dut Udaleko bitarteko Idazkari naizen honek, Alkate Lehendakariaren oniritziarekin.

ALKATEA
Mikel Ander Zubizarreta Gonzalez-Rua

BITARTEKO IDAZKARIA
Saioa Pineda Aranburu